

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ZUNDAKETEN ZULAKETA	Iraupena	80
		Baldintzatua	
Kodea	UF0756		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meataritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Zundaketak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Zundaketak egitea	Iraupena	260
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Lan- eta ingurumen-arriskuen prebentzioa zundaketen zulaketan (Zeharkakoa).	Iraupena	50
	Zundaketen eta eragiketa osagarrien egonkortzea		50
	Zundaketa-ekipamenduen mantentze-lanak egitea eta zundaketa amaitzea		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0415_2 ZUNDAKETAK EGITEA gaitasun-ataleko LB1 lanbide-burutzapenarekin, zulaketaren aitzinamenduari eta segurtasun-neurriei dagokienez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Arroka-mota desberdinen zulaketaren ezaugarriak eta arroken zulaketak sor ditzakeen arazoak identifikatzea arazo horiek konpontzeko behar diren lanabesak, erremintak eta prozedurak prestatzeko.

E1.1 Estalkiaren edo lurzoruaeren zulaketaren arazoak eta egon daitezkeen konponbideak aztertzea.

E1.2 Harrizko arrokak, harea isurkariak edo harea mugikorak zulatzeko arazoak eta arazo horiek izan ditzaketen konponbideak deskribatzea.

A2: Hainbat motatako makinekin eta zundaketa-ekipamenduekin (kable bidezko eraunspena, errotoeraunspena, biraketa zundaketa-lagina erauzteko) gauzatutako zulaketaren eragiketa-prozesua deskribatzea.

E12.1 Zunden zulaketan esku hartzen duten parametroak adieraztea eta parametro horien balio egokienak aztertzea.

E12.2 Zunden zulaketan erabilitako lanabesak, haga-multzoak, hodiak eta erremintak deskribatzea eta prozesuaren zati bakoitzean zer erabilera duten adieraztea.

E12.3 Zundaketa-lagina lortzeko zulaketa-prozesua deskribatzea, zundaketa-lagineko tutu desberdinak erabiltzen diren kasuetan.

E12.4 Zundaketa-mota bakoitzean erabiltzen diren lohi-motak azaltzea, zeharkatutako lurraren ezaugarrien, hautatutako zulaketa-metodoaren eta zundaketan lortu nahi diren berreskuratzeen arabera.

E12.5 Zundaketa-lagina etengabea erauzteko zulaketa-parametro egokienak adieraztea.

A3: Zundaketa-ekipamenduak modu egokian eta seguruan erabiltzea eta kontrolatzea zulaketa gauzatu bitartean, zulaketaren behar bezalako egikaritzapena bermatzeko ezarritako prozedurei jarraikiz.

E13.1 Zulaketa-zunda behar bezala erabiltzea, edozein motatakoa izanda ere; aitzinamendu-abiadurari balio egokian eusteko, zundaketa-hormei egonkor eutsiz, zulaketa-lohien zirkulazio egokia eta, hala badagokio, zundaketa-laginaren berreskuratzea bermatuz.

E13.2 Lanabesak, haga-multzoak, hodiak eta erremintak behar bezala erabiltzea zulaketa-prozesuaren zati bakoitzean.

E13.3 Hagatxoak eusteko eta elkartzeko jarraitu beharreko prozedurak aplikatzea, zulaketarekin jarraitu eta zundaketaren sakonera handitzeko.

E13.3 Zulaketa-lohia prestatzea zunda-motaren eta zulatutako lurren arabera, horien ezaugarriak kontrolatuz ezarritako prozeduren arabera.

E13.4 Zundaketa desbideratzeko arriskua detektatzea eta kontrolatzea.

E13.5 Lohiak galtzeko arriskua detektatzea eta kontrolatzea.

E13.6 Haga-multzoak trangatzeko arriskuak edo lurreko hausturen presentzia detektatzea eta kontrolatzea.

A4: Zundaketen zulaketan detrituak edo zundaketa-lagina berreskuratzeke jarraitu beharreko prozesua aplikatzea.

E14.1 Zulaketa-lohia iragazteko, zulaketa-detritua berreskuratzeke, detritu hori biltzeko eta etiketatzeke jarraitu beharreko prozesua aplikatzea haien behar bezalako identifikazioa bermatzeko ezarritako prozedurei jarraikiz.

E14.2 Zundaketa-lagina berreskuratzea zundaketa-laginen tutu-mota desberdinak (sinplea, bat egindako bikoitza, bikoitz birakaria eta wirelinea) oinarri hartuta,.

EI4.3 Zundaketa-lagina zundaketa-laginen kutxetan jartzea, zundaketa-laginen behar bezalako antolamendua eta zundaketa-laginak erauzi direneko sakonera identifikatzeko, etiketak bermatzeko ezarritako prozedurei jarraikiz.

EI4.4 Lan-partea, dagozkionak, egitea, zundaketa izandako gorabehera eta parametro guztiak idatziz.

EI4.5 Behar bezala identifikatutako kasu praktiko batean, zundaketa-ekipamendua erabili behar da; honako lan hauek egin behar dira:

- Biraketa-abiadura egokia dela kontrolatzea.
- Lohi-, ur- edo aire-presioa egokia dela kontrolatzea.
- Beharrezkoa denean lohiak prestatzea eta horien parametroak kontrolatzea aldizka, edo zulaketa gauzatu bitartean anomaliaren bat ikusten bada.
- Aitzinamendua eta zutabearen gaineko bultzada kontrolatzea.
- Makinen zirkuitu hidraulikoen presioak kontrolatzea.
- Hagatxoak edo zulaketa-tutuak eranstea behar den bakoitzean.
- Zulaketa-lanabesa ordeztzea edo aldatzea lanabesaren higadura-maila edo zeharkatutako lurraren ezaugarriak hori egitea gomendatzen dutenean.
- Zundaketa-lagina berreskuratzea.
- Zundaketaren ahoa behar bezala egokitzea aurrerago erabili ahal izateko eta arriskuak ekiditeko edo behin betiko ixtea bertan behera uzten bada.

Edukiak:

1. Arroka eta lurzoruaren propietateak, zulaketan eragiten dutenak.

- Gogortasuna, urradura-maila, kohesioa eta hauskortasuna.
- Parametro horien balio arruntak arroka-mota desberdinetarako.
- Zulagarritasuna.

2. Zundaketarako zulaketaren teoria.

- Zulaketaren teoriaren oinarritzko kontzeptuak:
 - Biraketa-abiadura.
 - Lanabesaren gaineko pisua.
 - Sartze-abiadura.
 - Momentu eragilea.

3. Eragiketa zundaketa-makinekin eta -ekipamenduekin.

- Kable bidezko eraunspenezko zulaketa-zundekin:
 - Prestaketa.
 - Martxan jartzea.
 - Eragiketa-prozesuak.
 - Kontroleko parametroak, biraketa-abiadura, aitzinamendua eta bestelakoak.
 - Loturak.
 - Elementu osagarriak.
- Zuzeneko zirkulazioko errotoeraunspenezko zulaketa-zundekin:
 - Prestaketa.
 - Martxan jartzea.
 - Eragiketa-prozesuak.
 - Kontroleko parametroak, biraketa-abiadura, aitzinamendua eta bestelakoak.
 - Loturak.
 - Elementu osagarriak.
- Kontrako zirkulazioko errotoeraunspenezko zulaketa-zundekin:
 - Prestaketa.
 - Martxan jartzea.
 - Eragiketa-prozesuak.
 - Kontroleko parametroak: biraketa-abiadura, aitzinamendua eta bestelakoak.
 - Loturak.
 - Elementu osagarriak.
- Errotoeraunspenezko zundekin gauzatutako eragiketa goranzko edo beheranzko zunda inklinatuetarako eta zundaketa horizontaletarako.
- Zundaketa-laginak erauzteko biraketa bidezko zulaketa-zundekin:
 - Prestaketa.
 - Martxan jartzea.
 - Eragiketa-prozesuak.
 - Kontroleko parametroak: biraketa-abiadura, aitzinamendua eta bestelakoak.
 - Loturak.

- Elementu osagarriak.
- Biraketa-zundekin gauzaturako eragiketa goranzko edo beheranzko zunda inklinatuetarako eta zundaketa horizontaletarako.
- Zuzeneko edo kontrako zirkulazioko rotary zundekin gauzaturako eragiketa, bereziki petrolio-prospekzioko eta -ustiapeneko zunden kasuan:
 - Prestaketa.
 - Martxan jartzea.
 - Eragiketa-prozesuak.
 - Kontroleko parametroak: biraketa-abiadura, aitzinamendua eta bestelakoak.
 - Loturak.
 - Elementu osagarriak.

4. Eragiketa-prozesuak eta -prozedurak zundaketa egiteko.

- Zundaketaren hasiera. Zundaketaren sarreraren prestaketa.
- Estalkiaren zulaketa.
- Arroken zulaketa:
 - Harritzkoak.
 - Harea isurkarizkoak.
 - Pintura plastikoak????.
 - Mugikorrak.
- Zulaketa-lanabesen muntaia eta maneia.
- Bultzada
- Txandakatzea.
- Zulaketa zundaketa-laginak lortuz.
- Lohien zirkulazioa: ohikoa edo kontrakoa.
- Lohiak: lohi-motak.
- Lohien propietateak:
 - Biskositatea.
 - Erreologia.
 - Dentsitatea.
 - Ur askea.
- Lohi-prestaketa.
- Lohien kontrola:
 - PH neurriak.
 - Biskositatea.
 - Dentsitatea.
- Haga-multzoen elkarketa.
- Hagaxkak eustea.
- Lohia berreskuratzea: lohien baheketa edo iragazketa eta kontrola berriz erabiltzeko.
- Zulaketa zundaketaren norabidearen desbideratzerik gabe.

5. Eragiketa-prozesuak eta -prozedurak zundaketa egitean zundaketa-laginak lortzeko.

- Zulaketako detritua berreskuratzea.
- Zundaketa-lagin etengabea berreskuratzea zundaketa-lagineko tutu mota desberdinekin:
 - Zundaketa-lagina berreskuratzea zundaketa-lagineko tutu simple bidez.
 - Zundaketa-lagina berreskuratzea bat egindako zundaketa-lagineko tutu bikoitz bidez.
 - Zundaketa-lagina berreskuratzea bat egindako zundaketa-lagineko tutu bikoitz birakari bidez.
 - Zundaketa-lagina berreskuratzea zundaketa-lagineko tutu wireline bidez.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-erlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-egagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gaitasuna izan behar du UF0752 Lan- eta ingurumen-arriskuen prebentzioa zundaketen zulaketan

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Zundaketak